

**BILERA-AKTA****ZEHAZTASUNAK • IDENTIFICACIÓN DE LA REUNIÓN**

<b>Bilera / Reunión</b>	<b>Kontratazio Mahaia / Mesa de Contratación</b>				
<b>Tokia / Lugar</b>	<b>Idazkaritza Saileko batzar-gela / Sala de reuniones del Departamento de Secretaría</b>				
<b>Eguna / Día</b>	2021-05-05	<b>Hasiera-ordua Hora de inicio</b>	9:30	<b>Amaiera-ordua Hora de finalización</b>	9:50
<b>Espedientea Expediente</b>	Aritzatxu kantinaren eta komunen emakida administratiboaren A gutun-azala irekitzea (2021/IDA_ERA_0051) Apertura del sobre A para la concesión administrativa de la cantina y baños de Aritzatxu (2021/IDA_ERA_0051)				

**Bertaratuak • Asistentes**Presidentea / Presidente:

Idoia Platas Arenaza

Bokalak / Vocales:

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idurre Basterretxea Altonaga

Idazkaria / Secretaria:

Nerea Lopez Angulo

Batzarra hasteko, batzarkideek adierazi dute ez daukatela gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik.

Emakidaren oinarriek ezartzen dutena betez, bileraren xedea da epe barruan jasotako A gutun-azalak (“erantzukizunpeko aitortpena”) irekitzea, oinarrien 11. puntuan adierazitakoaren arabera. Aipatu beharra dago, kontratazio plataforma bidez ez dela proposamenik aurkeztu.

Hona hemen aurkeztutako bost proposamenak:

- \*02861\*\*\* – STAMM – Erregistro data: 2021/04/23
- \*92279\*\*\* – EIDER RENTERIA GALINDEZ - Erregistro data: 2021/04/23
- \*91169\*\*\* – OIER ERAUZKIN SANTOS - Erregistro data: 2021/04/23
- \*89989\*\*\* – JOSEBA GABANTXO PEREZ - Erregistro data: 2021/04/23
- \*02857\*\*\* - HAGALAZ - Erregistro data: 2021/04/23

Jarraian, aurkeztutako eskaintzen A gutun-azalak irekitzen dira, emaitza honekin:

- \*02861\*\*\* – STAMM – Eskatutako dokumentazioan enpresaren zigilua falta da. **Errekerimendua bidaliko zaio 3 laneguneko epean zuzenduta aurkezteko.**
- \*92279\*\*\* – EIDER RENTERIA GALINDEZ - Eskatutako dokumentazioa ereduaren arabera eta sinatuta aurkezten du. **Onartua**
- \*91169\*\*\* – OIER ERAUZKIN SANTOS - Eskatutako dokumentazioa ereduaren arabera eta sinatuta aurkezten du. **Onartua**
- \*89989\*\*\* – JOSEBA GABANTXO PEREZ - Eskatutako dokumentazioaren oinean lekua eta data zehaztea falta da. **Errekerimendua bidaliko zaio 3 laneguneko epean zuzenduta aurkezteko.**
- \*02857\*\*\* - HAGALAZ - Eskatutako dokumentazioan enpresaren zigilua falta da. **Errekerimendua bidaliko zaio 3 laneguneko epean zuzenduta aurkezteko.**

Saioari amaiera ematen zaio. Horiek horrela, akta hau ematen da Bermeon, sinadura elektronikoan adierazitako datan.